

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1929'ko Otsailaren 28'an.

Auruko agirian aipatzen diran euskaltzaiñak bildu dira. Otoitzez asi ta ez degu beste lanik egin Iztegikoa baño ta *accidente* itzeraño eldu dira. Oi danez otoitzez amaitu da.

Iruñan, Aldundi-Jauregian, 1929'ko Epailaren 21'an.

Batzar ontan euskaltzain jaun abek bildu ziran : Azkue, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Ormaetxea eta Intxauroñdo Mikel. Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—Azkue jaunak irakuñi du bere lan eder eta mamitsu bat, Arturo Kanpion jaunari, gure euskaltzainkide maiteari eskeñia. Izentzat auxe darama : *Ensayo acerca de la evolución de la lengua vasca*. Lan onek bi zati ditu : lenbizikoan, Bizkai-euskalkia aztertzen da ta onetxek izan dituen aldakuntzak ongi ikusteko, Azkue jaunak berezi-berezi erabili ditu : *Refranes y sentencias de autor desconocido*.—*Método breve de aprender la lengua vizcaina, de Rafael Micoleta*.—*Traducción al euskera del catecismo del Padre Ripalda por el Licenciado Martín Ochoa de Capanaga* ta beste *dotriñatxo* bat, ainbeste gañantziko ez dana; *Doctor Betolazak* euskerara itzulia. Zeatz eta zeatz, bata besteko berezipenak aditzeko, Bizkai-euskalkiko lan au atalez bezela ebakia dakar : *Arcaismos morfológicos, lexicográficos, fonéticos*,

ortográficos, elementos de otros dialectos vascos y románicos.

Lan onek bete du batzaraldiko beta guzia ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu da batzaraldia.

Iruñan, Aldundi-Jauregian, 1929'ko Epailaren 22'an.

Aurako batzaraldian aipatzen diran jaunak berak bildu dira. Intxaurondo jauna ez. Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—Iztegi beñiaren lanetan jardun du Euskaltzaindiak. Lan oni dagokionerako, Altube jaunak idazki bat biali du, alako garantzizko oartxo batzuk egiñik, ta auxe ongi aztertu nai luke Euskaltzaindiak. Altube jauna, naiz beroni batzaraldi ontan izan ez, Iztegiaren lanetan iñor bezin langile azaltzen da. Berau emen ez dalako, ufengo batzaratarako utzi dira idazki ofen azterpen eta erautsia. Aitatu zan batzaraldi ontan, on litzakela, darabilkigun iztegi-eredu-erdaldunetik itzen batzuek kentzea, antxiñakoak izanik oraingo mintzaketan gutxitxo dabiltzalako.

II.—Euskaltzaindiak bere urgazle izendatu du Anjel Irigarai jauna, euskerakiko lanetan gizon trebea.

Donostian, Eusko-ikaskuntzaren gela nagusian, 1929'ko Joñailaren 25'an.

Batzar ontara euskaltzain jaun abek eldu dira: Kampion maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza,